

Berbaz

Amankomunazgoa teknologien erabilpen okerrak aztertzen ari da, ondoren prebentzio lanari ekiteko > 8



Bost hilabete greban Tratamientos Térmicos Iurretan > 4

> Tratamientos Térmicos Iurreta enpresak Abadiñon duen egoitzan greban daude duela bost hilabetetik

> Mobilizazioei ekin diete orain; atzo Durangon antolatutako manifestazioan lan hitzarmenaren alde egin zuten

Udal gestioaren 'Liburu beltza' kaleratu dute > 7

Joan zen barikuan etxez etxe banatu zuen EH Bilduk "Zaldibarko liburu beltzaren lehenengo kapitulua". Udaletxe berriaren eta Solobarria futbol zelaiaren obretan egindako gestioa gogor kritikatu dute.

Larrialdietako langileei babesak Durangon > 2

Durangoko Udalak Landakoko larrialdietako beharginei babesak adierazten dien mozioa onartu du aho batez. Martitzeneko udalbatzarrean landu zen gaia PSE-EEren ekimenez. Osakidetza informazio-espeditenteak zabaldu ditu zenbait langileren kontra, eta horiek etetea eskatu zuten udalbatzarrek.

R.P.S. 214/06



A. Urrutia
podologoa

Abinara Urrutia Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIKUA

688 861 975
info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Konvertitzaile 27 Beheko, 5. esk. - 48.200 Durango - EIZKARIA

Durango > 2

Salesen komentu okupatua itxi zuten astelehenean

Atxondo > 4

Gerediaga-Elorrio errepidean "irregularitasunak" salatu dituzte

Izurtza > 6

Gazta, Ardo eta Ogi Azoka egingo dute abenduaren 6an

Iurreta > 7

Azoka solidarioa egingo dute abenduaren 16tik 19ra

Herririk herri

> DURANGO

“Dispertsioaren loteria gaiztoan jarraitzen dugu”

Udalbatzarrean dispertsioaz berbetan egon dira preso senideak; babesa eskatu diote udalari

> MARKEL ONAINDIA

Martitzenean ospatutako udalbatzarrean preso senide batzuek parte hartu zuten, dispertsioaren inguruan berba egiteko. Astero ehunka kilometro egin behar izaten dituzte kartzeletara joateko, eta uste dute horrek arriskua sortzen diela. Horren adibide, irailaren 2an Asier Aginakoren amak eta lehengusinak auto istripua eduki zuten Madrilera bisitan zihozela. Beste auto batek atzetik jo zituen Guadalixen (Espainia), eta onik irten arren, ospitalean egon ziren egun hartan. Aginakoren amak, Amaia Etxenagusiak, amaieran hartu zuen berba: “Durangoko hamai-

ka familiak, astero dispertsioaren loteria gaiztoan jarraitzen dugu”. Hileroko aurrez aurreko bisita galdu zuen istripuaren ondorioz: “Hileko aukera bakarra semeari besarkada eta musu bat emateko”.

Udalari babesa eskatu gura izan zioten bizi duten egoeraren aurrean. Horregatik, Etxenagusiak hitza hartu aurretik, euren izenean mozio bat aurkeztu zuten Bilduk eta Aralarrek, eta horren alternatiba lez beste bat EAJk. Berdinketa gertatu zenez, batek ere ez zuen aurrera egin. Bilduko Urdaspal Bolinagak EAJ kritikatu zuen, mozioa urri hasieran aurkeztu ziotelako senideek, eta azaro amaie-



Amaia Etxenagusia, martitzenean, udal aretoan berbetan.

ran, udalbatzarrerako egun gutxiren faltan, beste mozio bat ekarri dutelako jeltzaleek. Aitziber Irigoras alkateak azaldu zuen Uri Buru Batzarrean landu behar izan dela gaia, eta horregatik atzeratu dela.

Gaiak eztabaida eragin zuen. PSE-EEko Fernando Castillock elkartasuna adierazi zien istripua izan zutenei, baina bere alderdiak ez zuen moziorik onartu. Aitortu zuen gaur egun

baldintza politikoak aldatu egin direla, baina ETA disolbatzea eta armak entregatzea exijitu zuen. ETak presoekin xantaia darabilela, eta presoak gizarteratzeko bidea damua dela azaldu zuen. Gainera, biktimen oroimena lantzea eskatu zuen. PPko Juan Jose Gastañazatorren iritziz, “eragindako kaltea” onartu behar dute presoek.

Aralarreko Dani Maeztuk, damuaren gaiaren harira, esan

zuen giza eskubideak baldintzaztea “astakeria” dela. Ohartarazi zuen dispertsioagaz senideei ere zigorra ezartzen zaiela, eta horiek ea zertaz damutu behar duten galdetu zien. Bolinagak azaldu zuen beste sasoi bat bizi dela Euskal Herrian: “Pausoak ematen ari gara. Noiz arte jarraitu behar duzue indarkeriaz berbetan?”.

Olatua, abenduaren 7an

Bestalde, abenduaren 7an Olatua ekimena egingo dute Durangon, preso eta iheslarien eskubideen alde. Antolatzaileek esan dute estadioetan edo ospakizunetan egiten den olatuaren keinua aldarrikapenerako erabili gura dutela. 15:30ean kalejiran irtengo dute Landakotik, eta Alde Zaharrera ailegatzean egingo dute ekimena. *Tantaz tanta, olatua* da lema: “Bakoi-tzak nahi edo ahal duenetik bere ekarpena egiteko sasoi da”. Joan zen barikuan aurkeztu zuten ekimena, eta kultur arloko hainbat pertsona ezagunek babestu dute, Igor Elortzak, Unai Iturriagak, Lander Garrok, eta Eneko Sagardoyk, esaterako.

Salesen komentu okupatua itxi dute

Ertzaintzak astelehenean itxi zuen Salesen komentua, hilabete eta erdi okupatuta egon eta gero

> M.O.

Hilabete eta erdi iraun du Salesen komentuak okupaturik. Joan zen astean husteko agindua eman zuen epaileak, eta martitzenean Ertzaintzak itxi egin zuen. Barruan ez zegoen inor husterara joan zirenean. Ertzaintzako talde berezietako kideak sartu ziren eraikineri; guztira Ertzaintzaren sei furgoneta bertaratu ziren. Ertzaintzak adierazi zuenez, eurek itxi ostean, eraikinaren jabea den enpresako beharginak obra egitera joan ziren, guztiz itxeko. Joan zen eguaztenean pren-

tsaurrekoa eman zuten eraikin okupatuko kideek, eta kritikatu zuten hamar urtez hutsik eta abandonatuta egon dela eraikin hori. Husteko aginduaren aurrean, euren proiektuekin jarraitzeko erabakia hartu zuten: “Hemen gaude, lanean jarraitzeko gogoarekin”. Enpresagaz hasieratik hartu-emanetan egon direla jakinarazi zuten, baina beste bide batetik salaketa ipini izana kritikatu zuten. Joan zen eguenean manifestazioa egin zuten Durangoko kaleetan, eta asteburuan ekintzak antolatu zituzten, bertso saioa esaterako.



Salesen komentua Galtzaretan kokatuta dago.

Hamahiru behargin kontratatuko ditu udalak

PSE-EEK esan du beraiek aurkeztu dutela proiektua, “gobernuaren aktibitate faltagatik”

> M.O.

PSE-EEren proposamenez, udalak hamahiru durangar kontratatuko ditu sei hilerako. Pintoreak eta igeltseroak kontratatuko dituzte, eta parkeak konponduko dituzte auzoetan, esaterako. Lanbideren laguntza bati eskerrak eroango dute aurrera egitasmoa. Pilar Rios zinegotziak azaldu du helburu bikoitza daukala, auzoetan lanak egitea eta enplegua sortzea. Kontratuak 45 urtetik gorakoak izatea lehenetsiko dute, sektore

horretako langabetuen egoera kontuan hartuta. Durangon 2.140 langabetu daudela esan du. Lanbide herrietan enplegua sortzeko egindako deialdia izan da proposamenaren oinarria. PSE-EEK esan du eurek aurkeztu dutela proposamena udalean, gainontzeko alderdiei eta gobernu taldeari itxaron barik: “Gobernuaren aktibitate faltagatik egin dugu, laguntza hau alferrik ez galtzeko”. Guztira, aurrekontua 192.000 eurokoa da, eta Lanbidek 178.000 euro bideratuko ditu.

Ion Andoni del Amok zinegotzi kargua hartu du

> M.O.

Bilduk zinegotzi berria dauka aste honetatik aurrera. Izan ere, Ion Andoni del Amok martitzeneko osoko bilkuran hartu zuen kargua. Urriko bilkuran Arrate Elkorok utzitako hutsunea beteko du horrela. Del Amo soziologoa da, eta EHUko ikerlaria ere bai.

Elkorok adierazi zuen arrazoi pertsonalengatik utzi zuela udaleko ardura. Baina udaletik kanpo lanean jarraituko duela ere azaldu zuen.



Ion Andoni del Amo, zinegotzi berria.

Udalak larrialdietako beharginak babestu ditu

> M.O.

Udalak Landakoko larrialdietako beharginak babestu ditu. Martitzeneko udalbatzarrean landu zen gaia PSE-EEren ekimenez, eta aho batez onartu zen. Osakidetzak informazio-espedienteak zabaldu ditu zenbait langileren kontra, eta horiek etetea eskatu zuten. Langileen ordezkariak joan zen astean eman zuten espedienteen berri Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian. Erizain bat gehiago, anbulantzia medikalizatua eta instalazioak hobetzeko helburuagaz dabilta protestan beharginak.

PPren zuzenketa batzuk jaso zituen mozioak, eta pozik agertu zen Juan Jose Gastañazatorre. Bilduko Eider Uribek azaldu zuen ez dutela ondo ikusten espedienteak zabaltzea, eta beharginen alde egin zuen. Aralarreko Dani Maezturen ustez, “ongizate estatuan ezin dira murrizketak onartu”, eta gogoratu zuen 2011n, PSE-EE Eusko Jaurlaritzako agintean zegoenean, asteburueto zerbitzua murriztu zuela. Pilar Riosek ez zuen eztabaidan sartu gura izan, langileen egoerari indarra emanda.

Lehior Elorriaga irabazle argazki lehiaketan

Elorriagak egutegia osatzeko lehiaketako argazki onenaren eta paisaia onenaren sariak lortu ditu

> JONE GUENETXEA

2014ko egutegia osatzeko *Anbotok* martxan jarritako lehiaketan sari bikoitza jaso du Lehior Elorriaga zaldibartarrak. 500 euro eskuratu ditu argazki eta paisaia onenengatik. “Sorpresa eta poztasunez” jaso du albiste. Elorriaga albaitaria da formazioz, baina argazkigintza oso gustuko du. “Orain langabezian nago, eta denbora gehiago hartzen nabil argazkigintza sakonago lantzeko”, azaldu du irabazleak. Martzel Elorriaga bere anaia ere argazkizalea denez, bien arteko erronka legez hartu dute *Anbotok* martxan jarritako lehiaketa. “Hamabi herritako argazkiak ateratzea gogorra egi-

ten da, baina anaiarekin joanda, esperientzia polita izan da Durangaldea ezagutzeko”.

12 hilabete, 12 herri lehiaketaren hirugarren edizioak inoizko harrerarik onena izan du. 14 parte-hartzailek bidali dituzte ateratako argazkiak.

Nobedadeak

Anbotok 2014rako ateratako egutegia nobedadez beterik dator. Tenporak, eta ilgora eta ilbehera sasoiak ezagutzeko aukera eskainiko du, baita sasoi bakoitzean ere edo landatzeko ortuarien zerrenda ere. Durangoko Azokan eta ohiko salmenta leketan hiru euroren truk salgai egongo da laster.



Lehior Elorriagak 32 urte ditu, eta albaitaria da.

> MALLABIA

Toponimia-mapa aurkeztuko dute

Abenduaren 3rako ipini dute hitzordua kultur etxean

> JONE GUENETXEA

Pello Mugartzak eta Justo Azagirrek iaz hasitako toponimia lanaren emaitza aurkeztuko dute abenduaren 3an, 18:00etan, kultur etxean. Mallabiko toponimia-mapa osatzeko herriko 108 pertsona inkestatu dituzte. Gutxi gorabehera, 3.000 toponimo bildu dituzte. Gainera, urriaren 24tik

31ra erakusketa antolatu zuten toponimoen arloan herritarren ekarpenak egin zitzaizten. Datoren martitzeneko aurkezpenean Mila Mondragon alkateak, Mikel Gorritxategi Euskaltzaindiko Toponimia batzordeko burua, Felix Mugurutz Dunba argitaletzeko arduradunak eta egileek parte hartuko dute.

> EUSKARAK 365 EGUN



Topaguneak kanpainaren berri eman zuten eguneneko prentsaurrekoan.

Euskara urte osoan erabiltzeko aldarria

Kanpaina Euska Herri osora zabalduko da aurten

> JOSEBA DERTEANO

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da. Egun horren harira, orain hiru urte, Berbarok taldeak (*Anbotok*, Platearuenak eta Berbarok) *Euskarak 365 egun* kanpaina abiatu zuen, euskara urte osoan erabiltzeko aldeko aldarrikapena plazaratzeko. Martitzenean kanpaina hori bista-bistakoa izango da Durangalde osoan. Baina, aurten, lehenengoz, Topagunearen—Euskara Elkarteen Federazioaren— bidez Euskal Herrira zabalduko da mezua. Euskal

Herriko herri askok bat egin dute kanpainagaz. Atximendu argazkiak eta askotariko egitarauak webgune batean batu dituzte: *365egun.eu*. Durangaldeko Amankomunazgoak ere pankartak ipiniko ditu *Gaur ere euskararen eguna* leloagaz.

Era berean, Berbarok *Zergatik ez?* euskararen erabilera soziala sustatzeko tailerrak egingo ditu Durangoko Udaleko Euskara Sailaren laguntzagaz. Abenduaren 2, 3 eta 4an dira. Doako izen-ematea *berbarok.zergatik@gmail.com*-en egin daiteke.

> BERRIZ

Murgoitio eta Urzabal berriztuko dituzte

Urbanizazio lanak egiteko 306.000 euro erabiliko ditu udalak; 2014 hasieran hasia aurreikusiko dute

> AMAIA UGALDE

Ur saneamenduko loturak berriztu, argindar kable berriak ipini, erreka ertza txukundu... Hainbat urbanizazio lan egingo dituzte Murgoitio auzoan eta Urzabal kalean. Orland Isoird alkatearen berbetan, “inguruaren urbanizazio integrala” izango

da. Izan ere, urte askoan ez dute urbanizazio lanik egin auzoan, eta hainbat kontu daude hobetzeko.

Urbanizazio lanak lehiaketa bidez esleitu dituzte, eta lanotarako 306.000 euro erabiliko dituzte. Martitzen honetan osoko bilkuran diru hori bideratzeko

EKINTZAK DURANGALDEAN

ABADIÑO

AZAROAK 30

11:30ean: Traña-Matienako kaleetan zehar 'Korrika'.

12:00etan: Traña-Matienan kalejira Done Zezili koruarekin.

13:00etan: Peru Magdalenagaz, ipuin kontaketa Errotan.

16:00etan: Euskararen inguruan kafe tertulia, Mila Salterainek dinamizatuta, Txanportan.

17:00etan: Talde Batua eta Iluntze taldeen dantza saioa, Zelaietako plazan.

18:00etan: Herri jolasak, probalekuan.

21:00etan: Bertso afaria probalekuan

BERRIZ

AZAROAK 29

19:30ean: Bertso saioa, gaztelxean.

AZAROAK 30

11:00etan: Urteentzako tailerrak, pilotalekuan.

14:30ean: Bazkaria, frontoian.

ABENDUAK 1

20:00etan: 'Ez gara Palestinaz ari' bertso ikuskizuna, Kultur Etxean.

ABENDUAK 3

19:00etan: Barry Barrez 'Irish in Euskal Herria', Kultur Etxean.

21:00etan: Berbalagun afaria, gaztelxean.

ABENDUAK 4

17:30ean: Pirrix eta Porrotx frontoian.

aldaketak egin dituzte aurrekontuetan.

Lanen artean honako hauek daude: erreka ertza txukuntzea, ur saneamenduen loturak berritzea, urari bidea emateko kanalizazioa egitea, argindarraren kableatua berritzea, espaloiak handitzea, berrasfaltatze lanak egitea eta aparkalekuak atontzea. Erreka ertzean baranda berriak ere ipiniko dituzte.

Erreka alboko lanak direnez, Uraren Euskal Agentziak proiektuari oniritzia eman behar dio, eta horren zain daude udalean. 2014 hasieran aurreikusiko dute lanekin hasia.

ALBERDI



DURANGO

Askatasun etorbidea 1 - 946 817 658 Durango

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas

Alberdi Harategia



Bertako Okela

ALBERDI



prekozinatuak

Denetarikoa CATERING zehitzuak

Aurretiaz prestatutako janariak

> ABADIÑO

TTI enpresako langileen greba bosgarren hilabetera heldu da

Enpresa hitzarmena gura dute, "lan baldintza duinak" bermatuko dizkiena



Beharginak manifestazioan, Ezkurdin.

> MARKEL ONAINDIA

Bost hilabete greban, eta mobilizaziora salto egin dute. Tratamientos Térmicos Iurreta (TTI) enpresako bederatzi beharginek ekainaren 18an hasi zuten greba, eta euren aldarrikapenak bete bitartean, borrokan jarraituko dutela azaldu zuten atzo. Prentsaurrekoaren ostean, manifestazioa egin zuten ELAko 40 bat delegaturen babesagaz. Enpresa hitzarmen bat sinatu gura dute, "lan baldintza duinak"

"Gurago dute enpresa itxi, langileekin akordio bat lortu baino. Hori arduragabekeria da"

bermatu, eta lan erreformatik babestuko dituen.

ELA sindikatuaren Durangoko egoitzan egin zuten berba. Jose Mari Rementeria ordezkariak azaldu zuen egoera ez

dela erraza, baina eurak batuta daudela: "Bederatziak batuta gaude, eta horrek egiten du indarra". Enpresagaz negoziatu gura izan dute, baina kritikatu dute zuzendaritzak mahaian ez duela borondaterik erakutsi. Aspaldi hasi ei ziren negoziazioa eskatzen, eta saiakeren ostean, ekainean ekin zioten grebari. ELAko Industria eta Eraikuntza idazkariak, Itziar Larrazabalek, adierazi zuen enpresaren jarraera itxia dela, eta langileekiko mespretxuz jokatzeari egotzi zion. "Gurago dute enpresa itxi, langileekin akordio bat lortu baino. Hori arduragabekeria da".

Bestalde, duela aste bi zabalduko informazioa berretsi dute. Lan Ikuskaritzak 10.600 euroko isuna ipini dio enpresari. Grebalarien lana ordezkatzeari, eta grebalariei lantokira sartzen ez uzteagatik. Greba eskubidea urratu dietela, eta hori oso larria dela uste dute. Sindikatuak enpresa salatu du, eta epaiketaren zain daude.

> ELORRIO

Hamar lagunetik hiruk egiten du euskaraz

> AMAIA UGALDE

Kaleko elkarrizketetako %33,4 euskaraz dira Elorrioren. Hori da udaberrian egin duten kale erabilera neurketako emaitza nagusia. Hamar pertsonatik sei

dira euskaraz berba egiteko gai, eta ezagutza handitu egin da urteotan, besteak beste, D eredu orokortu delako herrian.

2008. urteko neurketatik bost puntu igo da erabilera. Umeak

dira euskaraz gehien bizi diren elorriarrak: %65,9k darabil euskara. Ezagutza ere oso handia da: %98 dira euskaraz berba egiteko gai. 15 urtetik 24 urtera, ordea, euskara %94,2k ezagutzen duen arren, erabilera asko jaisten da: %28,3k egiten du euskaraz. Helduen artean %26,2k darabil, eta adinekoek hamar elkarrizketatik bitan egiten dute euskaraz.

Buzkantza Jaia egingo dute asteburuan

Abenduaren 6an eta 7an egingo dute jaia

> M.O.

Hurrengo asteburuan, abenduaren 6an eta 7an, Buzkantza Jaia egingo dute Elorrioren. Udalak antolatu du, EME, Iturrizoro elkarte eta Eroskiren babesagaz. Herria ezaguna zen aspaldi odolosteak egiteagatik, baina azken urteetan ohitura galtzen joan dela esan dute antolatzaileek.

Ohitura hori berreskuratzeko helburuagaz egingo dute jaia, baita produktu gastronomiko gisa indartzeko ere. Gainera, herriko produktuen salmenta eta turismoa bultzatu gura dituzte. Abenduaren 6an buzkantza txapelketa egingo dute, eta, hurrengo egunean, odolosteagaz egindako pintxo txapelketa.

Ikasleek Elorrio hobeto ezagutuko dute

> M.O.

Udaleko Euskara Sailak eta ikastetxeek Elotop izeneko unitate didaktikoa argitaratu dute. Ikasleek Elorrio hobeto ezagutzeko asmoz egin dute liburua, historia eta garapenean sakontzeko, besteak beste. Liburua osatzeko, toponimia erabili dute. Hain zuzen ere, 2006an kaleratutako toponimia liburua hartu dute oinarritzat.

Lourdesko Ama ikastetxea Agenda 21 programan

> M.O.

Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxea Agenda 21 programara batu da. Joan zen barikuan egin zuten harrera ekitaldia, eta eskolako kideez gainera, udaleko eta Amankomunazgoko ordezkariak ere parte hartu zuten. Ekitaldi horren harira tailerrak egin zituzten, besteak beste.

Azaldu dutenez, iraunkortasuna eta kalitatea dira Agenda 21 programaren helburuak

Durungaldean hamasei ikastetxe daude programan. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da programa, eta iraunkortasuna eta kalitatea dira bere helburuak, azaldu dutenez.

> MAÑARIA

40 lagunek eman dute izena azokarako

> M.O.

Abenduaren 14an Mañarian ospatuko den bigarren eskuko azokarako 40 lagunek eman dute izena. Udaleko ordezkariak azaldu dute dagoeneko itxi dela izena emateko epea, eta partaide kopuruaren berri eman dute. Iazko kopurua bikoiztu egin da; arrakasta eduki du ekimenak, antolatzaileek uste baino gehiagok eman du izena. Eta 40 parte-hartzaileetatik hiru izango dira mañariarrak.

Abenduaren 14an ipiniko dituzte salgai bigarren eskuko gaiak, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean. Era guztietako produktuak salduko dituzte euren postuetan: arropak, liburuak, pelikulak, dekorazio apaingarriak, jostailuak... Adierazi dute pilotalekuan egozituko dutela bigarren eskuko azoka.

Hnuy illa nyha majah yahoo
(Poemak 1985-1995)
JOSEBA SARRIONANDIA
Abenduak 3, martitzena, 19:30-etan,
Durangoko Hitz liburu-denda / Sarrera doan

Igor Elortza · Unai Iturriaga · Leire Bilbao ·
Peru Magdalena · Paddy Rekalde ·
Bego Montorio · Andoni Urzelai ·
Arrate Mardaras · Eneko Sagardoy ·
Unai Abaunza · etb.

artekalea, 14 durango · 946 810 776
info@hitzliburudenda.com

hitz

momotxo
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

ERROTARITXUENA

DURANGO

HURRENGO ENTREGA!!

Etxebizitza hau zurea izan daiteke

Arriskurik gabe
eta baldintzarik onenetan



Sabadell Guipuzcoano



Bisita ezazu gure
etxebizitza pilotoa

Finantzaketa %100 arte
Baldintzarik onenetan
eta idatziz bermatuak

2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZa
3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZa

Etorri BIDEOA IKUSTERA gure web gunera



www.sukia.com
www.solvia.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

> ATXONDO

Gerediaga-Elorrio errepidean “irregulartasunak” salatu ditu udalak

EH Bilduk dioenez, “aldi baterako enpresa elkarteak ez ditu arauak betetzen”

> JONE GUENETXEA

Atxondoko Udalak azaldu duenez, Gerediaga-Elorrio errepideko lanak “beharrezko neurri eta kontrolak onartu barik” hasi ziren. Hilabete hauetan “ingurumeneko kaltegarriak diren hainbat lan ingurumen zaintzarik gabe” egin dituztela kritikatu dute. Aldi baterako enpresa elkarteak arauak ez baditu betetzen, “Atxondoko Udalak egokien deritzon moduan” jokatu duela azaldu dute pentsurakoan Aitor Torre batzarkidea, Rosa Elizburu alkatea eta Uzuri Gallastegi zinegotziak. Atxondoko Udalak dioenez,

2012ko udazkenean hasi zituen lanak Aldundiak (1.444 milioi euroko esleipena du). Lanak hasita zeudela konturatu zenean, udalak Ingeotyc, S.L. ingeniaritza enpresa kontratatu zuen jarraipena egiteko. “Zereginotan hasi eta berehala, arazoak eta irregulartasunak aurkitu genituen”. Lanak hasi aurreko txostenak 2012ko abenduan, lanak hasi ostean, idatzi zituztela kritikatu dute.

Auzokideek hainbat arazo salatu dituzte udalean. Desjabetutako eremutik kanpo zuhaitzak moztu dituztela diote, eta bertako zuhaitz babestuak bota di-

tuztela, inguruko lurretan “birlandatu” beharrean. Udalaren arabera, 2013an, errepidea eraikitzeke lanetan lur mugimendu handiak eragin dituzte. “Euria egiten duen bakoitzean urei eutsi eta iragazteko aurreikusitako sistema gehienak ipini barik daude, eta ez dute nahitaezkoa den baimenik”. Aldi baterako enpresa elkarteak neurri zuzentzaileak eta ingurumenaren zaintzakoak ez dituela martxan ipini diote: “Guztiak dira aurreikusitakoak eta aurrekontuan sartutakoak, kontratuak jasozten dituenak, eta derrigorrean bete beharrekoak direnak”.



Atxondoko obren irudia.



Torre batzarkidea, Elizburu Atxondoko alkatea eta Gallastegi zinegotzia.

Nekazaritza eta artisautza azoka, etzi

Azokako 30 postuetatik herena atxondarrenak dira

> JOSEBA DERTEANO

Domekan, XVII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute Apatan. Plazan, Euskalerrria kalean eta pilotalekuan 30 bat saltoki ipiniko dituzte askotariko janari (ortuari, gazta, ogi, ezti...) eta artisautza produktuekin: bitxiak, harri eta egur landuak, makilak... Goizeko 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik azoka. Saltokien heren bat, gutxi gorabehera, herriko ekoizleenak

izango dira. Udalak lehentasuna ematen die ekoizle atxondarrei; gainerako postuak Durangaldeko edo Euskal Herriko hainbat herritarrek osatuko dituzte, esaterako, zamudiotarrek eta elgetarrek.

Pilotalekuko aterpean Lumagorri oilaskoak erre, eta, ondoren, oilaskoekin prestatutako pintxoak salduko dituzte. Gura duenak talo postu bat ere aukezan izango du.

Gaztetxeak 15. urteurrena ospatuko du

> J.D.

Atxondoko gaztetxeak 15 urte egin ditu, eta urteurrena ospatzeko askotariko ekintzak prestatu dituzte astebururako. Bihar, 11:00etan, umeentzako tailer eta jolasak egongo dira, eta, ondoren, horma-irudi bat margotuko dute. 15:00etan baba-jana egingo dute, eta, arratsaldean, 17:30ean, herri olimpiadetan neurtuko dituzte indarrak. Gauean, 22:30etik aurrera, kontzertuak antolatuko dituzte: Kilauea, Trastorno, Etxilimo eta DJ Abaunza.

> OTXANDIO

Munduko musikekin osatutako bertso saioa

Oskar Estanga eta Jon Martin bertsolariek samba, tango eta bestelako doinuekin inprobisatuko dute

> J.D.

Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta, bihar, 19:00etan, *Bat-batean, munduko musikekin bertsotan* bertso saioagaz gozatu ahalko da Mainondo ikastetxe-ko gimnasioan. Bertsoa musika estilo anitzekin uztartzen duen ikuskizuna da. Jon Martin eta

Oskar Estanga bertsolariek munduko musika estilo anitzen (samba, tango, sona...) gainean sortuko dituzte bertsoak. Agertokiz agertoki hilabeteak darmatzan ikuskizuna da biharkoa, berritzailea, bertsoa beste adierazpide batzuekin gurutzatzen duen horietakoa.

> IZURTZA

Gazta, Ardo eta Ogi Azoka egingo dute abenduaren 6an

Durangaldeko Artisten Elkarteak erakusketa bat antolatuko du azokaren harira

> J.D.

Abenduaren 6an, San Nikolas egunean, Ardo, Gazta eta Ogi Azokaren hirugarren aldia antolatuko du udalak. Hiru produktu horiekin osatutako saltokiez gainera, beste hainbat produktu ere salduko dira; guztira 19 saltoki ipiniko dituzte, 11:00etatik 15:00etara, pilotalekuan.

Iazko antzera, Izurtzako ekoizle batzuek ere parte hartuko dute azokan. Horiez gainera, Durangaldeko (Berriz, Iurreta, Mañaria, Abadiño...) eta Euskal Herriko (Izarra, Lezama, Iribere, Oleta, Mauma, Larrabetzu...) hainbat txokotatik etorritako saltzaileak ere egongo dira. Produktuei dagokienez, ardo, gazta eta ogi postuekin batera, ezti, pate, ortuari, sagardo eta beste

askoratariko produktu saltzaileak ere etorriko dira Izurtzara. Azokak dirauen artean, plazan, Eusko Label oilaskoak erre eta pintxotan salduko dituzte.

Gainera, Durangaldeko Artisten Elkarteak osatutako erakusketa ere ikusgai egongo da

jubilatuaren elkartean. Udalaren gonbita ilusio handiz hartu dutela adierazi dute elkarteko kideek, eta euskal kulturari lotutako koadroak eramango dituztela, ahal dela, Durangalde edo Izurtzaren gainekoak. Domekara arte egongo da ikusgai.



Iaz, eguraldia lagun, bisitari asko batu zituen Izurtzako azokak.

**GOIMEK****DANOBATGROUP**

LAN ESKAINTZA

Artezketa Zilindrikoko Langilea

Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba bat da. Mekanizazioarako irtenbide osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen dugu. Gure aktibitatea makina erraminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasunezko pieza handien mekanizazioa bideratzen dugu.

ZEREGINAK

CNC artezketa zilindrikoko makinak eta programazioa menperatzea. Doitasun handiko bukatze lanak menperatzea.

ESKATZEN DA

- Titulazioa Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza.
- Hizkuntzak Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanposturen batean.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Autonomia eta arazoak konpontzeko gaitasuna.
- Egiaztapen tresnak erabiltzeko ezagutzak izatea.

ESKAINTZEN DA

- Berehalako inkorporazioa.
- Esperientzia eta gaitasunen araberrako soldata.

EPEA

Interesatuak bidali CV Giza Baliabide departamentura: ecarballo@goimek.com

> DURANGALDEA ASTEON**Burger Kingeko obra geldiarazi du Abadiñoako Udalak**

Obra-baimena falta duelako gelditu ditu Abadiñoako Udalak Burger King enpresaren lanak. Alkatearen berbetan, hondakinak kentzeko baimena eduki du Burger Kingek, baina eraikuntza lanei ekitekoa ez. EHNEK, berriz, manifestazioa deitu du abenduaren 14rako, McDonald's eta Burger Kingen etorreraren kontra. Ezkurditik eta Traña-Matienatik 17:30ean irten, eta Eroskira helduko da.

'Durangoko giroa' argazki lehiaketa, dendek antolatuta

Herriko giroa islatzen duten argazkiak batu gura ditu Dendak Bai merkatari elkarteak *Durangoko giroa* argazki lehiaketaren bitartez. Abenduaren 15era arte aurkeztu daitezke argazkiak, eta partaide guztien lanak elkarreko kideen dendetan egongo dira ikusgai, abenduan. Herritarrek argazki onenaren alde bozkatu ahalko dute.

Zumba maratoia egingo dute Filipinen alde

Haiyan tifoia Filipinetan eragindako kaltetuentzako dirua batzeko zumba maratoia egingo dute bihar, Durangon. Landako Gunean batuko dira 10:00etatik 13:00etara. Borondatez emandako dirua batuko da bertan, eta Unicefen bidez bideratuko dute Filipinetara.

Abadiñoako terrazen ordutegia zehaztu dute ordenantza bidez

Terrazen erabilera arautzeko ordenantza-zirriborroa onartu du Abadiñoako Udalak, eta herriko ostalariei helaraziko diete, proposamenak egin ditzaten. Testuak, besteak beste, terrazen ordutegia zehazten du. Astegunetan 08:30etik 22:00etara, eta jaiegunetan 23:00ak arte ipini ahalko dira terrazak. Udan aukera egongo litzateke ordubete beranduago zabaldu eta ixteko.

> ZALDIBAR**Aurreko gobernuaren gestioa kritikatu dute**

Udal gestioaren 'Liburu beltza' kaleratu du Bilduk

> ITSASO ESTEBAN

Joan zen barikuan etxez etxe banatu zuen EH Bilduk *Zaldibarko liburu beltza* lehenengo kapitulua. Argitalpenaren aurkezpenan Arantza Baigorri alkateak esan zuenez, "herritarren dirua non, noiz, zelan eta zergatik erabiltzen den eta erabili izan den" argitu, eta "legezkoak izan arren, etikoki salaga-

rriak diren kontuak" agertuko dituzte bertan, "herritarren dirua xahutzeko lotsarik ez duen gestio ereduari kritika egiteko".

Udalak 2002. eta 2010. urteen artean gauzaturiko proiektu biren kudeaketari buruzko datuak zabaldu ditu, argitalpenaren lehenengo alean, EH Bilduk: udaletxearen erreforma, eta Solobarria futbol zelaia.

Arantza Baigorri alkateak azaldu zuenez, aurrekontuan jasotzen zenaren "bikoitza baino gehiago" ordaindu zuen udaletxearen erreforma hori Zaldibarko Udalak. Baigorriaren berbetan, "udal langileen bulegoetan hobekuntzarik egin barik, langileen mahai zaharrak aldatu barik, ezertarako balio ez duen 8.635 euroko argiztapen dekoratiboa ipini zuten".

Zaldibarko Udalarari 2.482.653 euro kostatu zitzaion futbol zelaiaren hutsune "larriak" ere kritikatu ditu argitalpenan EH Bilduk, eta "arazok konpontzeko agian epaitegiatarajo" behar-kodutela aurreratu dute.



Arantza Baigorri eta Carmen Sanpedrok aurkeztu zuten argitalpena.

> IURRETA**Azoka solidarioa egingo dute abenduaren 16tik 19ra**

Anderebidek eta udalak antolatuko dute azoka



Ibarretxe kultur etxean egingo den azokan batutakoa JAED elkarteari emango diote.

> AITZIBER BASAURI

Aurten, azoka solidarioa egingo dute lehenengo biderrez, abenduaren 16tik 19ra. Anderebide Elkarteak eta udalak antolatutako azokan "prezio herrikoia" jarriko dituzte, eta batutako dirua JAED elkarteari emango diote. "Krisi egoerak bereiziki eragiten dien emakumei" lagundu gura die ekimenak.

Erabili barik, eta egoera onean dauden jostailuak, liburuak, apaingarriak, CDak... bildu gura dituzte, gero, saltzeko. Abenduaren 10era arte utzi daitezke Ibarretxe kultur etxean, eta herritarrek ez eze, merkatari eta ostalariak ere deitu dituzte parte hartzera. Zarate-Elexpek emandako otzara ere zotz egingo dute 10 eurotik gorako erosketa egiten dutenen artean. Abenduaren 24an izango da hori.

Euskal Makila eman diote Smurfit Kappa Nervióni

Smurfit Kappa Nervión enpresak jaso du Euskal Makila oho-rezko saria. Euskal Enpresa eta Sozietateen Fundazioak emandako saria da hori, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sare ekonomiko, industrial eta sozialari egindako ekarpenagatik, euskal jatorria ez duten pertsona edo enpresei emandakoa.

XXII. Euskal Enpresa sarien ekitaldian jaso du Iurretako enpresak aldizka ematen den saria. Smurfit Kappa Nerviónek 225 langileko lantaldea du, eta 125 milioi eurotik gorako salmentak ditu urtean.

> GARAI**Domekara arte ikusgai egongo dira pintura lehiaketako lanak****> M.O.**

Joan zen domekan kaleko pintura lehiaketa ospatu zuten, Garain. Zubiaurre artisten familieren omenez izan zen, aurten egin dituzten beste hainbat ekitaldiren antzera. Hamabi margolari aurkeztu ziren, eta Raimundo Argos bilbotarra izan zen garaila. Lan guztiak domekara arte egongo dira ikusgai udaletxean.

Argosek 600 euro jaso zituen. Bere atzetik, Eduardo Alsasua gasteiztarra eta Leticia Gaspar plentziarra sailkatu ziren. Garaitar onena Jose Amantegi izan zen, eta 300 euro irabazi zituen.

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Solaguren kalea, 3
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO



BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK
ETA BEROGAILUAK, AZULEJU, ZOLADURA,
TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPEN

► Berbaz

Amaia Sarrionandia eta Arrate Arana | Droga mendekotasun teknikariak

“Ez dakigu teknologiarekiko mendekotasuna dagoen, ala gizartea den aldatzen dabilena”

Zer eragin du teknologia berrien erabilpenak harremanetan? Hori ikertzen hasi dira Amankomunazgoko Droga mendekotasunen Prebentzio Sailean. Teknologien erabilpen okerrak aztertzea eta horien gaineko prebentzioa egitea beharrezko ikusten dute.



> AMAIA UGALDE

Orain arteko mendekotasunez gainera, mendekotasuna eragin dezaketen beste arlo batzuk landuko ditu, laster, Amankomunazgoko Droga mendekotasunen Prebentzio Sailek: ludopatia, teknologia berrien erabilera okerrak... Datorren urterako prestatu gura dute programa, eta, orain, ikerketa fasean daude.

Teknologia berriak mendekotasun bihurtu daitezke?

Amaia Sarrionandia: Niri beldurra ematen dit *mendekotasun* hitza erabiltzeak. Hitz oso gogorra da berez. Ikusi beharko da; ez dakigu mendekotasunak dauden ala beste barik, komunikatzeko beste modu batzuk sortu diren. Argi daukagu hainbat erabilera okerrekin prebentzio lana egin behar dela, baina mendekotasuna den edo ez den... Mendekotasuntzat ez ditugu hartuko, baina erabilera desegokiak, denbora larregian erabiltzea, beste gauza batzuk albo batera uztea... Horiek landu egin beharko ditugu.

Arrate Arana: Ez dakigu mu-

“

WhatsApp eta horrelakoak ez edukitzea sarritan koadrilatik deskonektatuta egotea da”

gak non dauden. Noiz esan daiteke mendekotasuna dela?

Batzuk, agian, ez dira lasai sentitzen teknologiak erabili barik.

A.S.: Drogen kasuan argi dago substantziak berak eragiten duela aldaketa kimiko bat burmuinean; mendekotasuna sortzen du horrek, eta ondorio fisikoak ikusi egiten dira. Teknologia berriekin zer gertatzen da? Mendekotasunak daude, ala gizartea aldatzen dabil? Batzuek egun osoa pasa dezakete Interneten, baina gero Internetik ez daukatenean, kapaz dira ondo egoteko. Hala ere, egia da beste batzuei gehiago kostatzen zaiela

teknologia berririk barik egotea. Kasu horietan izan daiteke giza trebetasunak ez dauzkatelako behar den moduan landuta, edo beste gabezi batzuk dituztelako. Arlo hori da azken finean guk ikasgeletan lantzen duguna. **A.A.:** Ikasle batzuek esaten dizute: “WhatsApp kentzen badidazu, hil egingo naiz”. Eta duela urtebete hori barik biziginen. Ohitura hartu dute, eta horrelakorik ez edukitzea sarritan koadrilatik deskonektatuta egotea da. Hor informazio asko mugitzen da, eta WhatsApp aplikaziorik ez badaukate, ez dute gauza askoren berri izaten.

A.S.: Eurentzat oso inportantea da, gainera, lagun-taldea.

Talde presioa...

A.A.: Drogen inguruan askotan berdina pasatzen da. Beste guztiak edaten eta nik ez dut edango? Bada, nik ere edango dut, bestela taldeko arraroa izango naiz.

Teknologien erabilera okerre lotuta, orain asko entzuten da ‘Ciberbullying’ kontzeptua.

A.S.: Ikasleen artean erabiltzen

da, eta nik uste dut askotan ez direla kontziente egiten duten minagaz. Interneten baten baten argazkia ipini ahal dute barregarria iruditzen zaielako, eta, gaur egun, mezuak oso arin mugitzen dira alde batetik bestera. Jende askori ailegatzeko zaio, eta hori oso mingarria izan daiteke. Beste batzuetan, benetan, eurek nahita egiten duten gauza bat da. Era inkontzientean egiten diren horietan, behintzat, prebentzio lana egitea komeni da.

Ludopatia ere landuko duzue programa berrian.

A.S.: Gai hori ez da batere berria; elkarte asko dabil arlo horretan lanean. Guk prebentzioan egingo dugu lan, hori da gure arloa. Online jokoetan, kirol jokoak eta horrelakoetan, ordu asko sartzen dituzte orain gazteek. Azken finean, prebentzio lana antzekoa da ludopatia kontua denean edo droga kontua denean. Landu behar dira emozioak, autoestimua, familia arteko harremanak, lagun arteko harremanak, depresioak... **A.A.:** Arrazoiak ere antzekoak izan daitezke. Drogak hartzen

hastearren edo jokoan mendekotasunaren atzean giza trebetasun falta egon daiteke.

Teknologien erabileri buruzko ikerketa egiten hasi zarete. Zertan datza ikerketa?

A.S.: Ikasgeletan drogak edo sexualitatea lantzeko egiten ditugun saioetan inkestak pasako ditugu, jakiteko zenbat ordu igarotzen dituzten mugikorragaz, online jokoetan jolasten, Interneten... Gero, elkarrizketak egingo ditugu, hainbat arlotan gaia zelari ikusten duten jakiteko. Gero, programa zehaztuko dugu. Ikasketa fasean gaude. Jardunaldietan parte hartzen, jardunaldiak antolatzen...

A.A.: Gu teknologia arloan ez gara oso adituak, eta egunean ipintzen gabilta orain.

Guraso asko oso arduratuta dabil arlo honekin.

A.A.: Askok ez dute kontrolatzen zenbat gauza egin daitezkeen teknologiek. Ikerketa amaitzen dugunean, baliteke guraso-eskolak ere sartzeko programan, baina hori aurrerago izango da.



JATETXE GIDA

ÑAM!



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4
Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



10.
urteurrena



HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO
Tel.: 945 450 125

Karta. Ardoak. Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Iritzia

GUTUNAK



gutunak@anboto.org
eguztieneko 17:00ak arteko epea

ZALDIBARTARRAK ETA EUSKARA

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu abenduaren 3an, baina, euskarak egun jakin bat behar al du ospatzeko? Beharbada bai, baina, euskarak ez al du merezi egunero ospatzea eta gozatzea? Egizu proba! Guk erronka jarriko dizugu.

Badira urte batzuk Zaldibarko Udalak Euskararen erabilera Plana martxan jarri zuela, 2008an hain zuzen. Urte hauetan guztietan udalak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko makina bat ahalegin egin dituzte bertan ari diren langile eta politikoei. Bestalde, horrelako plangintzak martxan jartzen direnean, tarteka neurketak ere egiten dira aurrerapenik izan den edo ez jakiteko. Neurketak egin dira, 2011n, 2012an eta 2013an, eta honako hauek izan dira emaitzak: • Udaleko langileek lehen hitza euskaraz egiten dute ia kasu guztietan, bai telefonoan, bai aurrez aurre. • Herritarrek jartzen direnean harremanetan euskaraz egin duten kasuak %44tik %55era pasa da. Hau da, erdiak baino gehiago egiten du euskaraz. • Leihatilan egiten diren elkarrizketen erdia euskaraz izan dira azken neurketan, duela hiru urte baino 9 puntu gehiago. • Telefonoan egiten diren elkarrizketetan %37tik %45era pasa da euskararen erabilera. • Langileen arteko harremanetan euskararen erabilerak gora egin duen arren, oraindik bada gozatzeko tartea.

Euskara badao normalizaziorako bidea jorratzen udalean, eta aurrerapenik ere egin dira, baina denon beharra dugu, udaletik zerbitzua euskaraz emateko eta herritarrek zerbitzuok euskaraz jasotzeko. Animo, beraz! Egizu euskaraz udalarekin, udalak euskaraz erantzungo dizu eta.

Zaldibarko Udala

EUSKARAK 365 EGUN

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian euskaraz bizi, aldarrikatu, plazaratu, izan eta ospatzeko deia egin dugu Euskaltzaleen Topagunetik, herriz herri antolatuta dauden euskaltzaleen elkar-teetatik. Aurten, Euskarak 365 Egun dituela aldarrikatu nahi dugu, euskaraz nonahi eta noiznahi aritu nahi dugula, baina orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi. Euskaraz bizitzeko hautua egin dugunon aldarrikapena da, baina aldarrikapenetik haratago doana, ekimenetik eta antolakuntzatik asko duena. Euskaltzaleon hautua, hautu antolatua izan da urtetan; antolatzeke izan dugun bisioa hizkuntza komunitatearen garapenaren oinarrietako bat izan da: jakin dugu biltzen, elkarren arrimuan eragiten, hedabideak sortzen, euskarazko kulturagintzari bizia ematen, euskarazko hezkuntza antolatzen, aisialdia euskaraz bizitzeko guneak loratzen, helduak euskalduntzeko sarea osatzen eta transmisio mekanismoak martxan jartzen. Jakin dugu, batez ere, kolore anitzeko euskaltzaleentzat euskaltasunean oinarritutako espazio askeak egituratzen. Hautu hori egin dugun euskaltzaleok osatzen dugu euskararen herriaren muina eta erantzukizunez jokatzeko jarraitzea dagokigu.

Gure esku dago euskararen herria osatzen jarraitzeko baldintzak sortzea. Euskaltzaleon ekarpena behar beharrezkoa izango da etorkizunean ere, inoren zain egon gabe, jarraitu behar dugu espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botereguneetan eta inguru hurbilenetan eragiten. Euskaltzaleen esku dago euskararen herriaren garapena: herrian antolatzen diren euskaltzaleen esku, administrazioetan erabakiak hartzeko ardura duten euskaltzaleen esku, harreman sareak ehuntzen diharduten euskaltzaleen esku, enpresatan lanean eta aginte organotan ari diren euskaltzaleen esku, zure eta gure esku.

Plazara irten gaitezen, herria, kalea, plaza, euskaraz bete dezagun. Bizi gaitezen euskaldun eta euskaltzale, geu izateko euskararen herrian.

Euskaltzaleen Topagunea

ARGAZKI BAKOTXAREN ATZEAN

Sekula bez hasarre. Beti animoak emoten. Prest edozein erreportaje, alkarriketa, ekitalditara joateko. Beti ideia barrizaileraren bat buruan. Aldizkariaren azalerako proposamenak astetik atera diferente... Segun Lazkano lagun eta lankide eukitea lujo bat eta gozada bat izan zan.

ERAZeko familian joan jakun lehenengoa da bera, eta palo handia izan da danontzat. Gure familia txiki horretan parte inportantea zan. Ordu dezente egiten genduzan alkarregaz. Bere funtzino nagusia argazkiak zaintzea bazan be, alkarriketatzen genduzan eta egiten genduzan erreportajeetan eukiten eban inplikazioa totala zan. Bardin zan, goizean goiz, gabaz berandu, mendiko botak jantzita, pixka bat eleganteago ekitaldi finagoetan... Danetara egokitzeko gaitasuna eukan, eta, batez be, jendeagaz konektetako gaitasuna eukan.

Milaka argazki atara ebazan ERAZ sasoiaren eta bertan lan egin gendunoi argazkigintzaz erakutsi be bai. Zeozelan horretan gutako batzuen "maisu" be izan zan. Horregatik, gure artetik joan bajaku be, argazki bakotxaren atzean jakin badakit beti hortxe izango dala Segun.

Ohore bat Segun zu lagun, lankide eta maisu eukitea!

Izaskun Ellakuriaga

LIPUS vs SHAKESPEARE

Heriotza, eromena, mendekua, zalantza, traizioa, boterekeria, familia, ustelkeria, errealitate eta ilusioaren arteko jolasa... Galderaren aurrean bageunde, horiexek direla esango genuke *Hamlet* garatzen duten ildoak.

Historian tragediarik antzeztuenetakoa izango da, beharbada. Gai unibertsal horiek guztiak, dakigunez, zalantzaren geruzapean estali zituen Shakespearek. *To be or not to be. That's the question.* Galdera bakarra. Mendeku hartu ala ez. Zalantzaren prototipoa da *Hamlet*, gizakia-aren izaeraren muinean loturik den adimena eta borondatearen arteko borroka, arrazonamendua eta sentsibilitatea. Nahia eta ezina. Burua eta tripa. Zer gara gu gogoeta barik? Ekintzaile hutsak?

Antzina Danimarkan kontatzen zen legenda batek emozioa sorrarazten zuen belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititzen zenean. Horregatik jaso eta bilduko zuen apaiz hark XIII. mendean, seguru asko. Eta hirurehun urte beranduago inoizko drama egilerik handiena izendatua izan den Shakespearek berriro ere jaso eta beste errealitate batera egokitu zuen.

Paperean euskaratua bagenuen arren, euskal oholtzetan ikusteke oraindik Artedramak begi aurreetara ekarri digun arte. Beste laurehun urte geroago.

Gai existentzialisten pribilegioa da mendeetako jauzi-jauzika hori. Gaurkotasuna zer den ederki erakutsi zigun Lipusek: gure barneetako fantasmak edozein egoera, lis-kar, arazo edo bizipenen aurrean, berberak dira.

Eta horregatik maite dugu antzerkia. Taula-gainekoak geu garelako. Barneak astintzen dizkigulako.

Shakespearek goia jo omen zuen lan honekin. Antzezanaren barruan antzerkia egin zuelako. Lipusek beste pauso bat eman nahi izan du. Baina, hori ez desbelatzeko eskatu zigun ikusleoi... Noraino, txo?

Eskerrik asko honelako bizipenak posible egiten dituzuen guztioi. Programatzaileei ere bai.

Josune Aranguren - Durango

SEI HANKAKO MAHAIA

URDASPAL BOLINAGA

Bildu



Dispertsiorik ez!

Asteburu oro gaizki lo egin semea/alaba, aita, neba/arreba, neska-/mutillaguna... nola egongo ote den jakin ezinik. Aurkeztu behar diren dokumentu guztiak behin eta berriz errepasatu ezer ez ahazteko, osterantzean kalean geratzen baitzara. Errepideak ondo dauden ziurtatu, bidea luzea baita. Kotxea gasolinaz bete, bidesariak ordaindu, eta ehunka kilometro arretaz egin, istripurik ez izateko.

Hori da zoritarrez familia askok pairatzen duten zigorra edo kondena bikoitza. Kondena bikoitza diot, beraien senideak pairatzen duten kondenez gain, beraiek ere asteburu oro pairatzen baitute kondena, eta ezer egin gabe, gainera. Kontuan izan behar da legea ere ez dela betetzen, legeak dioenez preso bakoitza bere herritik hurbilen dagoen espetxean egon behar baita.

Durango, kondena horrek, irailean, Asier Aginako euskal preso politikoa- ren senideak istripu bat izatera eraman zituen. Zorionez, bi senideak zauritu arren, oraindik, kontatu egin dezakete, beste senide batzuk bidean geratu baitira.

Hain larria izanik pairatzen duten egoera, Durangoko herritar guztiena den udalera jo zuten senideek babes bila. Senideen nahia, gobernu taldearekin batu, eta hainbat batzarren bidez udalak gai honen inguruan hartuko duen jarrera adostea zen, bakoitzaren ikuspegiak adierazita eta akordioetara helduta.

Aldiz, alkate andreak senideekin elkartu zenean eskatu zien beraien eskaerak idazteko, eta bere alderdiko buruei helaraziko zizkiela. Eskaerak idatzi zituzten eta hilabete eta erdi itxaroten egon ostean erantzuna jaso zuten, hain zuzen ere, plenora doazen gaiak proposatzeko epea bukatzen den egun berean.

Azken ahalegin bat ere egin zuten senideek akordioetara heltzeko, eta PNV alderditik arazo bakarra ikusten zuten akordioetarako, hain zuzen ere, informazio hau herritarrei zabaltzearena. Zergatik ez dute nahi informazio hau zabaltu eta jendeak gai honetaz hitz egitea? PP eta PSOE alderdiek argi utzi zuten beraien postura, eta PNVk?

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko azaroaren 29a
11. urtea - 524. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> MUSIKA



Z.Fuertes.

Ruper Ordorikaren azukre koxkor musikalak gozagarri

Urrian kaleratu zuen 'Azukre koxkorak' diskoa aurkeztuko du Ordorikak

> ITSASO ESTEBAN

Euskal Herriko musikagintzatik maitatuenak dituen dozena bat kanturen berrinterpretazioekin urrian kaleratu zuen *Azukre koxkorak* diskoa aurkeztuko du Ruper Ordorikak, gaur, Durangoko Plateruenean: "Disko hori abiapuntu hartuta jardungo dugu, eta kanta horiek eskainiko ditugu, baina horiek bakarrik ez, beste kanta asko ere eskainiko ditugu", azpimarratu

du Ordorikak. Disko hori, kanta horiek "ospatu gura ditugu", dio musikari oñatiarrak: "Izan ere, disko hau neuk ere espero ez bezalako oihartzuna izaten ari da". Estilo eta garai ugari bildu dituzte disko abestiek, eta askotariko jendearengana ailegatu da *Azukre koxkorak*. Ruper Ordorikaren bizitzan mugarri izan diren talde eta bakarlariren kantak bere ukituagaz eskainiko ditu gaurko zuzenekoan.

Besteak beste, Hertzainak, Itoiz, Kortatu, Koska, Errobi, Oskorri, Delirium Tremens edo Balerdi Balerdi taldeen eta Txomin Artola, Xabier Lete, Mikel Laboa eta Etxahun-Iruriren kanten bertsioak joko ditu.

Azken urteetan aldamenean izan dituen musikariek lagunduta ariko da Ruper Ordorika 22:30ean hasiko den emanaldian: Arkaitz Miner, *Lutxo* Neira eta Hasier Oleagagaz.

> POESIA

Sarrionandiaren 'Hnuy illa nyha majah yahoo' errezitatzen

Elkarrek berrargitaratu duen Sarrionandiaren liburu olerkien irakurraldia egingo dute Durangon


> I.E.

Abenduaren 3an, 19:30ean, Durangoko Hitz liburu-dendan egingo dute Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoo* poesia bildumaren berrargitalpenari loturiko errezitaldia. Joseba Sarrionandiak 1985. eta 1995. urteen artean idatzirik olerkiak biltzen ditu Elkar argitaletxeak 95ean kaleratu zuen *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburuak. Hain zuzen, liburu horren edizio berrituaren aurkezpen ekitaldia izango da Hitz liburu-dendako martitzenekoa. Iurretako idazlearen hainbat zuzenketa aintzat hartu dituzte berrargitalpenerako.

Durangaldeko hainbat sortzailearen ahotik izango dira, Hitz liburu-dendan, *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburu olerkiak entzungai. Unai Abaunzak gitarragaz lagunduko ditu, eta eskualdeko hainbat idazle eta sortzailek, "liburu olerki kutunak aukeratu", eta ozen irakurriko dituzte. Bes-

teak beste, Igor Elortzak, Unai Iturriagak, Leire Bilbaok, Peru Magdalenak, Paddy Rekaldek, Bego Montoriok, Andoni Urzelaik, Arrate Mardarasek eta Eneko Sagardoyk hartuko dute abenduaren 3ko Hitz liburu-dendako ekimenen parte.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, errezitaldiaren ostean, liburu-denda pareko Gozo-Leku tabernan pintxoak eskainiko dizkiete bertaratzen direnei.



> KRONIKA BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2013

Beti mugan, baina berriz barruan

Elizondoko eta Donostiako saioen osteko gogoeta

> ENKO ABASOLO, 'ABARKAS'

Barkatuko didazue, baina ez dut bi saioen kronikarik egingo, hiru arrazoirengatik: ez naizelako objektibotasun batetik egiteko gai; ez dudalako leku nahikorik; eta buruak ez didalako hori eskatzen.

Badira hilabete batzuk Unai Iturriagari eta Igor Elortzari (hasieran Erika Lagomari ere bai) txapelketarako prestakuntzan laguntzen ari garela lagun talde bat. Bide luze bezain gogorra txapelketa bat prestatzearrena, ezin duzue imajinatu. Norberaren egiteko gogoia eta jendeak zutaz espero duena elkartzen dira sarritan, nahiz eta, batzuetan ez bat egin. Hori gertatu zitzaion Unairi Elizondon, berak mugan ikusten zuen bere burua

(kanpoan esango nuke, agurra entzunda), baina beste askok finalerako aukera askorekin ikusten genuen saioa amaitu eta puntuak eman aurretik.

Saio osoa izan zen berea, eman behar zenean emanda (10eko handian, 10eko txikian eta kartzelan) eta eutsi behar zenean eutsita (8ko txikian eta puntuka), nahiz eta, bi ariketa horietan ere perla batzuk utzi: 8ko txikiko lehen bertsoa, adibidez. Azkenean, puntuaketek arrazoi eman ziguten, eta Unai finalean izango da seigarrenez jarraian. Hori da hori marka, mutil! Zorionak eta disfrutatu, merezi duzu(e) eta!

Donostiakoa bukatu eta gero, eta lau urte itxaron eta gero, berriz barruan, final handian izango da Igor. Zorionak zuri

ere! Lan bikaina egin du Igorrek txapelketa hasi zenetik, saio guztietan: Tolosakoan oso goitik, eta Donostiakoan goitik. Nabari zitzaion aurtengo txapelketan zer edo zer handia egiteko gogoia, eta, kontuz, oraindik finala dauka-eta bere dohainak berriz ere erakusteko. Donostiako saioan zer egiteko gai den erakutsi zuen, baina ni kartzelako lanarekin geratuko naiz. Doinu berrian osatutako lana, eta nolako hiru bertso eder, gainera.

Beraz, berriz ere durangar bi izango dira Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean. Han izateko aukerarik ez duzuenok, jakin, finala pantaila handian ikusteko aukera izango duzuela Plateruenean, eta goazenok disfrutatu dezagun, ahaztu gabe Mauleko finalerdia falta dela.

P.D.: Bertso saioen kronika nahi duenak, www.bertsoa.com atarian entzun ditzala saioak, eta bakoitzak bere analisiak egin ditzala.



Argazkiak: Gari Garaialde.

> MUSIKA

Organista gazte bi Arandoñok antolatutako zikloan, domekan

Lau eskutarako kontzertua eskainiko dute, Juan de la Rubia eta Ana Aguado organista gazteek, Durangoko Andra Marian, abenduaren 1ean, 19:00etan



Juan de la Rubia.



Ana Aguado.

> ITSASO ESTEBAN

Arandoño kultur elkarteak Organo Kontzertuen zikloa antolatu du, eta organo kontzertu bi ekarriko ditu Durangora, abendu hasieran. Abenduaren 1ean, 19:00etan, lau eskutarako emanaldia eskainiko dute ziklo horren barruan Juan de la Rubia eta Ana Aguado musikari gazteek, Andra Marian.

Valentzian, 1982an jaio zen de la Rubia, eta bere belaunaldiko organistarik arrakastatsuenetakoa da; eta, Palentzian, 1984an, sorturikoa da Aguado. Organoaren ondarea babestea helburu duen Tadeo Ortega elkarte-konpresidentea da Aguado, eta musika ikasketak Katalunian egin dituzte musikari biek. Durangoko emanaldian, Mozart, Carleton, Tomkins eta Merkel musikarien piezak interpretatuko dituzte Juan de la Rubiak eta Ana Aguadok, lau eskutara.

Abenduaren 6an, 20:00etan Roberto Frescok eskainiko duen kontzertu-solasaldia izango da Organo Kontzertuen zikloaren barruko bigarren hitzordua. Formatu bereziko emanaldia izango da: solasaldia eta kontzertua uztartuko ditu. Aurten, Andra Maria elizako koruan egingo dute emanaldia.

Madrilgo Almudenako Santa Maria de la Real katedraleko organo-jotzaile nagusia gonbidatu dute Durangoko kontzertu-solasaldi horretarako: Roberto Fresco organista. Europa, AEB, Latinoamerika eta Filipinetan jarduten du Frescok, eta XVI. mendeko musikatik abangoardiako musikara doan eremua osatzen du bere erreperitorioak.

> Bizitzaz eta obraz

Bere bizitzari eta obrari buruzko solasaldia eta zuzeneko organo musika emanaldia eskainiko ditu. Hain zuzen, duela hiru urte egin zen ziklo honetako lehenengo solasaldi-kontzertuan jo zuen Montserrat Torrent musikariaren ikasle izandakoa da Fresco.

Iaz hamabost urte bete ziren Durangoko Arandoño elkarteak sortu zutela, eta hainbat urtean antolatu du elkarte horrek, Organo Kontzertuen zikloa.

GEURE DURANGALDEA**JON IRAZABAL**

Gerediagako kidea

**Apaiatz arteko euskera**

Hilaren 6an beteko dira 50 urte Antonio Garcia Escobar Zaldibarko eskolako maisua norbaitek jipoitu zuela. EAJ/PNVko *Gudari* aldizkariak hilabete batzuk lehenago bere euskararen aurkako jarrera salatua zeukan. Herri mailako komentarioek sortu berria zen ETaren inguruko jendeari leporatu zioten ekin-tza zuzen horren egiletasuna. Garai hartan gertatzen zen bezala, airean gelditu zen astindua eman zuenaren izena. Baina... agintariak ez ziren erantzun gabe gelditzearen aldekoak.

1957tik bazegoen Durangaldean, Arrazolan, ipurdia geldirik sekula eduki ezin zuen apaiatz gazte bat, Jose Antonio Retolaza *Kili-kili*. 1963ko ikasturtean Elorrioko Funcko kooperatibak uri hartan zeukan eskolako zuzendari izendatu zuen, eta, noski, euskara irakasten hasi zen ikasketxe hartan. Garai hartako Elorrioko alkateak Bizkaiko gobernadore zibilararen eta Pablo Gurrupide Bilboko gotzainaren aurrean salatu zituen ikasketak horiek. Salaketa kontuan izan zuten, eta agintari haiek abenduaren 26an euskara irakastea galarazi zuten. Ondoren, Retolazak Arrazola utzi, eta Madrilerara joan zen psikopedagogia ikasketak egitera.

1964. urtean, uztailearen 17an hain zuzen, Eduardo Ryan apaiza izan zen gotzainaren debekua jaso zuena, Durangon San Frantzisko ikasketeko gela batean euskarazko eskolak eman ez zitzan.

1970era itxaron beharra egongo zen, Jose Maria Cirarda gotzainaren garaian, Karmelo Etxenagusia eta abar elizaren "bedeinkapenarekin" antolatutako Derioko udako lehen ikastaroaz gozatzeko.

> **KRONIKA** KANTUAREN KANTOIA 2013, PLATERUENA. JUPITER JON

Entzun, elurra ari du

> ARITZ MALDONADO

Bi urteren ostean, atzera itzuli dira Jupiter Joneko kideak Plateruenera. Jendez gainezka orduan, eta lagun artean oraingoan, baina ausart taularatu dira Nerea Garrido, Baxi Ubeda eta Aida Torres (Joxe Caballero falta zen), bakararra den proposamenarekin.

Musika eta zinema modu berean ulertzen dute irundarrek: sinplea, baina iradokitzailea izan behar du. Honela, Karel Zeman txekiarraren *Cesta Do Pravěku* filma musikatu dute, historian milaka urteko bidaia eginda. Plateruena haitzulo-eraman gaituzte Aidaren erritmo karratuekin; Baxi eta Nerearen gitarra joko sotilek, ostera, ñabardurak erakutsi di-

tuzte abenturan. Lau gazteren bidaia, kobatik hasi, eta dinosauroen borrokara iritsi arte, ibilaldia lokaztuta amaitzeko.

Ausart agertokian, eta egonezinak entsegu lokalean. Urtean musikagintzan aritua da laukotea, eta Lisabö, Akauzazte eta Bukaera lako taldeetan zaildu dira. Musikagintza, sentsazioak eragiteko tresna gisa ulertuta, noski.

Industriarik ez da euren ustetan. Etiketek, ostera, aspertu egiten dituzte. Beste liga batean jokatzeko dute irundarrek. Beste galaxia batean. Bidasoako (eta inguruetak) harrobi emankorreko hainbat talderen kasuan legez, BideHuts kolektiboa arduratu da sorkuntza jario hau bideratzeaz.

Amaitzeko, elurra eta maitasuna parez pare; hitzez deskribatu ezin daitezkeen sentsazio eragileak, biak. Hartara, Yoko Onoren *Listen, the snow is falling* jo dute jupitertarrek, pantailan Kontxako hondartza

elurrez estaltzen ari dela. Horrela itxi da Kantuaren Kantoiaren bosgarrena.

Ez dago hau azalduko duen hitzik, bizi egin behar dira horrelakoak.

Hurrengo urtera arte!



Durangoko Andaluziako Kultur Zentroa
Dantza alardea
 Azaroaren 30ean • 19:00etan
 San Agustin KULTUR GUNEA
 DURANGOKO GELA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
 www.plateruena.net

AZAROAK 29 - 22:30etan 10/12 euro
RUPER ORDORIKA
 DURANGOKO AZOKA 2013
 MUSIKA KONTZERTUAK

AZAROAK 30 - 13:30etan Santa Ana elizpetik hasita
KANTULAGUN KALEZ-KALE
 KANTUZELEEN TXOKOA


AZAROAK 30 - 22:00etan 10 euro
ETEN (TRATU TXARRAK)
 MUSIKA KONTZERTUAK

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

Arrike
 liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
 Tel.: 94 620 18 93
 Faxa: 94 681 64 03

Arrate Illaro | Irudienea gunearen arduraduna



“Gai sozialak jorratzen dituzten dokumental asko eskainiko ditugu aurten”

Durangoko Azokako Irudienea, ikus-entzunezkoen plaza, urrats bat gehiago emango du 48. edizioan, eta aurten Zugaza zinema aretorea lekualdatuko da. Horrela, eskainiko dituen hamahiru filmak kalitate handiagoz gozatu ahal izango dira, eta proiektioez gainera, mahai-inguruak, sortzaileekin solasaldiak, filmen aurkezpenak, tailerak eta bestelako jarduerak ere eskainiko dituzte. Arrate Illarok kudeatzen du Irudienea gunea.

Zer leku dute ikus-entzunezkoek Durangoko Azokan?

Durangoko Azoka euskal liburu eta disko azoka izatek kulturaren plaza izatera zabaldu da, eta hedapen horretan bere lekua dute ikus-entzunezkoek, kulturaren beste arlo bat direlako, literatura, musika edo antzerkia diren bezala. Zentzu horretan, Irudienea gunek kulturaren beste aurpegi bat eskaintzen du. Gainera, euskal kulturaren barruan ikus-entzunezkoek oso rol garrantzitsua dute. Beti izan dira jende askoren gustuko, eta euskaraz aisaldian gozatzeko tresna oso baliotsua dira: erraz kontsumitzen direlako, eta adin guztientzako egokiak direlako.

Zer garrantzia du Irudienea zinema aretorea eramateak?

Alde batetik, Durangoko Azokaren plan estrategikoari erantzuten dio. Azoka Durango osora zabaldu nahi da, eta bide horretan,

Irudienea Landakotik aterako da. Bestetik, ikus-entzunezkoen gune naturala da zinema aretoa. Horregatik, proiektioek kalitatean asko irabaziko dute kokaleku berriarekin.

Antolatzen dituzten jardueretan nabaritu da aldaketa hori?

Bai, noski. Euskarazko ikus-entzunezko lanen erakusleioa da Irudienea, eta sortzaileak ikusleekin harremanetan jartzeko plaza da. Helburu horrekin, proiektioak eskaini ditugu, eta filmen sortzaileak bertan egongo dira lanak zuzenean azaltzeko, eta bizipenak kontatzeko. Alegia, elkarren arteko truka-keta hori elikatzen. Ildo horretan, emakumeen lanak azalertzeko mahai-ingurua ere antolatu dugu.

Proiektioei dagokionez, zeintzuk dira amu nagusiak?

Denak izan litezke, baina, esaterako, *Euskara jendea*, *Izan pirata* eta *Euskal Herriko nonbait* pelikulen aurkezpenak. Gainera, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak *Loreak errepidean* film berriaren aurrerapena ekarriko dute. *Help! Socorro! Lagundu! Goenkale* TV Moviearen estreinaldia egingo dugu, eta Goenkaleko aktoreak etorriko dira Durangora, aurkezpena egiteko. Aurten, nabarmentzekoa da, gai sozialak jorratzen dituzten dokumental asko eskainiko ditugula.

Kameratoia ere antolatu duzue,

Euskal Herriko IX. Ikus-entzunezkoen Rallya. Zelako harrera eduki du lehiaketa horrek aurreko edizioetan? Zein da deialdiaren helburua?

Urte dezente dira Kameratoia antolatzen dela eta hori bada seinale bat. Igual hasieran izen-ematea oso potentea izan zen, gaur egun badaude beste antzeko proiektu batzuk, baina euskara hutsean direnak ez dira hainbeste, eta Kameratoia erreferentia da eta badaude parte-hartzaile asko urtero errepikatzen dutenak. Alde batetik, sortzaile gazteei leku bat ematea da helburua, eta, bestetik, euskaraz gozatzeko tresna bat ipintzea. Hau da, nahiz eta, oso adituak ez izan, gazteak etor daitezten eta 48 orduan film bat egin dezaten euskaraz gozatuta.

Azokan parte hartzen duzuen hirugarren urtea izango da. Nolako esperientzia izan da orain artekoa, eta zer espero duzue edizio berriari begira?

Oraindik jaio berritako egitasmoa da. Urtetik urtera publikoaren erantzuna progresiboa izan da, baina, oraindik, egonkortzeko prozesuan gaude. Aurten, azokan ikus-entzunezkoek badute espazio duin bat, eta oraingo helburua da ahalik eta jende gehien hona erakartzea.


Nolako publikoa erakarri nahi duzue zuen jarduerekin?

Ikus-entzunezkoak gustatzen


zaizkion edozein adineko publikoa. Durangoko Azokara gerturatu nahi duen ororentzat dago zerbait interesgarria Irudienean.

Ikasleen egunerako bikoizketari buruzko tailer bat antolatu duzue.

Umeentzat oso esperientzia polita da ezagutzea, aurrez aurre, Shin Chani ahotsa ipintzen dion pertsona. Euren marrazki bizidunak barrutik ezagutzean flipatu egiten dute. Eta, ikusteaz gainera, protagonista bihurtzen dira euren ahotsak irudiari ipinita.



Durungaldearen historiaren hamar pasarte



Durungaldearen historia ezagutzeko aukera eskaintzen du Astola ikerketa eta historia urtekariak.

Gerediaga Elkartearen ekimenez, eta Txelu Angoitia argazkilariairen gidaritzapean, hamar erreportaje interesgarri bidelagun hartuta, Durungaldeko historian barneratzeko aukera dugu. 1300. urteko bando-gerrak, San Antonio jaiak, Durangoko auzo elkarten borrokak, txakolinaren sekretuak, Durangoko arma-fabrika, Durango grabatu eta ilustrazioetan, Ermuko etorkinak, *Mikeldi* idoloa, eta Elorrioko monasterioak eta komentuak edota Euskadiko salbamendu-txakurren taldea sakonean aztertzen ditu Astolaren 9. edizioak. Ohiko salmenta puntuetan eta Durangoko azokan salgai aurkituko duzue urtekaria.



BANDO-GERRAK

J. Manuel González Cembellin

Garai oparo baten ondoren, Europa Atlantikoak krisialdi ekonomiko eta sozial sakona sufritu zuen 1300etik 1500era. Testuinguru hura ondo zetorkion sasoi hartan agintean zegoen nobleziari. Krisialdia zela eta, noblezia sarritan murgildu zen gerrateetan, irabaziak eta boterea lortzeko. Gure lurraldean oñaztarrak eta ganboatarrak mende eta erdi aritu ziren elkarren aurka borrokan.



GARAI BATEKO 'SANANTONIO' ZORAGARRIAK

Juan A. Hernández

Ekainaren 13an urtero Euskal Herri osoko jendea dotore jantzen zen Urkiolara joateko. Herritarrak trenez, autobusez, gurdiz nahiz oinez heltzen ziren. Urkiolan ematen zuten eguna, eta santuari otoitz egiteaz ere gogoratzen ziren. Askok kanpoan igarotzen zuten gaua. Gerraostean, gorri denboran, jaiegun hura primerakoa zen eguneroko bizimodu gogorrean eten bat egiteko.



AUZO ELKARTEN BORROKAK

Rakel Calvo


Durangoko biztanle kopurua ikaragarri hazi zen joan zen mendearen erdialdean. Jendetza hura *etxe merkeetan* (*casas baratas* deritzen auzoetan) jarri zen bizitzten, eta auzo horietan sortu ziren auzo mugimenduen borrokek herriaren beraren bizimodua baldintzatu zuten. Durangoko inguruei nortasuna eman zieten auzuneak izan ziren.



TXAKOLINA, URTEKO ARDOA?

Uri Astola

Lurretik sortutako produktuen artean batek, behintzat, bilakaera bikaina izan du, eta gaur egun erreferentea da gure gastronomian. Garai batean indarrik gabeko ardo garrantza iruditzen zitzaion jendeari, eta merkaturatu beharrean etxean edaten zuten; baina txakolingileen lan gogorrari esker, kalitatezko ardotzat onartzen dute gaur egun.



DURANGOKO ARMA-FABRIKA

Juan L. Calvo

Durangoko Madalenosteko eraikina 1990ean bota zuten. Lantegi zahar hark kokatu zuen Durango Euskal Herriko armagintzaren mapan. Riera, López y C^a eta Durangoko fabrika izenetik ezagutzen zuten. XIX. mendearen erditik mendea amaitu arte errebolber eta eskopeta asko egin zituzten bertan. 1990ean eraitsi zuten Madalenosteko eraikina.



DURANGO, GRABATUETAN ETA ILUSTRAZIOETAN

Joseba Aizpurua

XVI. mendetik XIX. mendera (harririk eta argazkigintza asmatu arte) marrazkilariek eta grabatzaileek egin zituzten irudiak; paisaiak, eraikinak, jende ospetsua nahiz gertakarien irudiak. Helburua dokumentatzea eta informatzea izan arren, ilustrazioak balio plastiko eta artistiko handikoak dira.



ERMUA, MILAKA ETORKINEN HARRERA-LEKU

Estibalitz González

1960. hamarkadan Ermua eta Benidorm izan ziren Estatuan biztanle hazkuntza-ehunekorik handiena izan zuten bi udalerriak. Ermuak 1950-1970 urteen artean, etorkinak uholdeka jaso zituen. Orduan etortakoak bertakotzen joan dira, eta horien ondorengoan mestizajeak ematen dio herriari egun duen pluraltasuna eta kultur aberastasuna.



MIKELDIREN MISTERIOA

F. F. Palacios
Mikel Unzueta

Mikeldi idoloaren inguruan mende askotan sortu dira usteak eta teoriak. Bere jatorriari, esanahiari eta egileari buruz urteetan eztabaidatu da. Testuinguru arkeologikorik ez daukanez, eta Euskal Herrian antzeko beste piezarik ez denez ezagutzen, misterioak gaur egunera arte iraundu. Hala ere, Palacios eta Unzuetak badute beraien teoria.



ELORRIOKO MONASTERIOAK ETA KOMENTUAK

Igor Basterretxea

Elorriko monasterioen eta nekropoliaren bidez elkartu zituzten ingurueta herrietarrak Goi Erdi Aroan. Bada, bai garai hartan, bai Aro Modernoan, Elorri oso aktiboa izan da, eta hezkuntzak beti piztu du interes handia herrian. Horrexegatik daude horrenbeste erlijio-erakunde, eta Jesuitak herrira erakartzeko asmoa ere interes horren ondorioa izan zen.



BILATZEKO GRINA

Lorea Madina

Euskadiko salbamendu-txakurren taldeak (GPSE) 30 urtean dihardu lanean musu-truk. Aitzindariak izan ziren. Hurbileko katastrofe askotan erreskate lanetan lagundu dute. Taldeak lan garrantzitsua egin arren, larrutik ordaindu dute inoiz. Besteak beste, lau taldekide hil ziren erreskate lanetan ari zirela, 1987ko ekainean, Europako mendietan (Asturias).

Kirola

> PILOTA

Lopez eta Errandonearen artekoagaz hasiko dituzte finalerdiak, Olazarren

Gaur final-laurdenak amaituko dituzte, eta datozen eguenetan finaleko protagonistak erabakiko dira



Datozen asteetako jardunaldietan erabakiko dituzte finaleko protagonistak. Kepa Aginako.

> JOSEBA DERTEANO

Zaldibarko Olazar txapelketa unerik erabakigarrienean sartu da. Orain arteko jardunaldietako galbahe lanaren ostean, sailkatzea lortu duten pilotariak Euskal Herriko pilota txapelketa prestigiotsuenetako batean txapela janzteagaz egiten dute amets. Gaur, San Andres jaiak direla eta, partidu bi jokatuko dituzte: final-laurdenetako azkenak. Finalerako txartela datorren eguenetik aurrerako partiduetan jokatu da. Garai-penerako aukera dutenen artean Igor Azpiri elorriarra dago.

Gaur, 21:30ean, lau t'erdiko eta binakako partidu bana jokatu dira. Kaiolan, Gaizka Bendoiro errioxarra eta Joanes Bakaikoa doneztebarra neurtuko dira; binaka, aldiz, Asier Beitia eta Aitor Diez Andoni Mendi-

nuetaren eta Aitor Aizpuruaren aurka ariko dira.

Abenduaren 5ean, 21:30ean, lau t'erdiko lehenengo finalerdia jokatu dute Adrian Lopez larrabetzuarrak eta Ander Errandonea beratarrak. Errandoneak 17 urte ditu, eta Lopez hiru-lau urte beteranoagoa da. Biak dira gazteak, baina Lopezek hobeto ezagutzen du ofizioa, eta, horregatik, faboritotzat jo daiteke. Errandoneak errematerako dohain handiak ditu, baina oraindik ez da hain erregularra. Esaterako, final-laurdenetan 1-12 galtzen hasi zen Etxebarriaren aurka, eta, ondoren, zuzenean joan zen 22ra. Bere dohainak eta oraindik dituen hutsuneak bistaratu ziren partidu hartan.

Abenduaren 12an binakako aurreneko finalerdia jokatu

dute. Igor Azpirik eta Kerman Galarzak gaurko binakako partiduko irabazleak izango dituzte kontrario. Orain urte bi Mallabiko Biharko Izarrak txapelketako finalera heldu zen Azpiri beste final handi baten atarian dago. Galarzak eta Azpirik lana gogo-



Finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte. Kepa Aginako.

tik egin behar izan zuten joan zen astean Dorronsoro eta Perez menderatu (22-15) eta finalerdietara sailkatzeko. Partidu hasieran 9-2 aurreratu ziren arren, lan erdietara 11nako berdinketaz heldu ziren. Bigarren zatian, gogortasunak bere horretan jarraitu zuen, baina tantoak bizkaitarren aldera erori ziren. Lau pilotariak maila handiko norgehiagoka eskaini zieten Zaldibarko pilotalekuan batu zirenei.

Finalurreko bi 19an

Abenduaren 19an gainerako finalerdi biak jokatuko dituzte, 21:30etik aurrera. Lau t'erdian, atzo jokatu zuten Agirre eta Darioren artean irten da lehenengo sailkatua; bigarrena, gaur erabakiko da Altuna eta Bakaikoaren artean. Binakako bikoteetako bat Xabier Urbieta eta Xabier Tolosa gipuzkoarrek osatzen dutena da, eta euren aurkariak atzo jokatuak Yoldi-Arratibel eta Arrieta-Gorrotxategi partidutik irten dira (emaitzak www.anboto.org atarian).

>TXIRRINDULARITZA

Mendiko bizikleta martxa etzi, Zaldibarren

Izen-ematea doakoa izango da, eta eguenean bertan eman ahalko da, bizikleta martxa hasi aurretik

Zaldibarko Lagun Artea taldeak mendiko bizikleta martxa antolatuko du domekan. Aurten 12. aldia izango du.

Aurtengo martxarako ibilbide bi prestatu dituzte: 22 kilometroko bat, 900 metroko desnibel positiboa duena, eta 34 kilometroko luzeago bat, 1.600 metroko desnibela duena. Martxa biak

10:00etan hasiko dira, Zaldibarren. Izen-ematea doako da, eta eguenean bertan ere eman ahalko da izena, bizikleta martxa hasi aurretik.

Bizikleta probagaz gainera, parte hartzen dutenen artean askotariko zozketak egingo dituztela jakinarazi dute antolatzailerak.



Zaldibarko mendiko bizikleta martxak 12. aldia egingo du aurten.

AGENDA

> FUTBOLA

MAILA GORENA

Zaldia - Sporting Lufxana
· Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Etxebarri
· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Ariz
· Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan.

Iurretako B - Astrabuduako B
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaietan.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Amorebieta B
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Basauritar emakume
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

Iurretako - La Merced
· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaietan.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Santurtzi
· Zapatuan, 19:45ean, Landakon.

Mallabia - Zarautz
· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

MAILA GORENA

Elorriko Buskantza B - Mamarigako
· Zapatuan, 18:00etan, Elorri.

Presion Break - Ibaizabal
· Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun.

Sasikoa B - Askartza Claret
· Zapatuan, 18:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA

Dantzari - Zamudio
· Zapatuan, 17:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

BIGARREN ERREGIONALA

Racing Tolosto - Elorri Txiki
· Zapatuan, 15:30ean, Landakon.

Presion Break - Gu Lagunak
· Zapatuan, 18:10ean, Berrizburun.

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Lagun Onak
· Zapatuan, 16:45ean, Landakon.

> SASKIBALDIA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baque - Araberri
· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque - Deusto Loiola
· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA

Anbotopeko - Aurrera
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldia - Bilbo Berrio Otxoa
· Barikuan, 20:00etan, Zaldibarren.

Tabirako Baque - Jarrilleros
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

>SASKIBALOIA

Tabirako Baqueko talde nagusi biak indartsu dabilta

Liga hasiera txar bat egin ostean, gizonen taldea esnatu egin da, eta garaipenak pilotzen dabil; emakumeak hasieratik dabilta erne, eta bigarren daude



Tabirako Baqueko talde nagusi biak etxean jokatuko dute asteburuan. Zalaa Fuertes.

> JOSEBA DERTEANO

Gizonen Tabirako Baque taldeak aurkitu du jarraitu beharreko norabidea, eta liga hasiera pobreak buelta eman dio. Emakumeen talde nagusiari, aldiz, hasiera-hasieratik funtzionatzen dio iparrorratzak, eta liga hasiera bikaina osatu du.

Ligako lehenengo bost partiduak galduta, argi gorriak piztu ziren gizonen taldean. Denak ez zebiltzan norabide berean arraunean. Orain hilabete,

etxean Azkoitia-Azpeitia taldearen kontra jokatutako partidua izan zen garai berri bati ekiteko mugarria. Denboraldiko lehen garaipenak indarberritu egin zituen, eta hurrengo partidu biak ere irabazi egin zituzten Atletico San Sebastian eta Goierri-Verkol taldeen aurka. Gainera, azken partidu horretan erakustaldia eskaini zuten zaleen aurrean, eta xehatu egin zuten Gipuzkoako taldea: 74-47. Joan zen asteburuan amaitu zitzaizen garai-

penen bolada Mondragon Unibertsitatea taldearen kantxara egindako bisitan, baina kontuan hartu behar da Mondragon multzoko talderik indartsuenetakoa dela, zazpi garaipen eta porrot

